



Alkatetza
Honako idazki biko bera tramitarako
Idazkaria Saileria
Pase el presente escrito al Negociado de
..... para su trámite
LASARTE-ORIA. 2014. AZA. - 7
NOV.
IDAZKARI OROKORRAK

MOZIOA: GARDENTASUNAREN INGURUKO ARAUTEGI BAT IDAZTEKO PROPOSAMENA

Gaur egun ia adostasun osoa dago administrazio publikoa kudeatzeko garaian eduki beharreko irizpideen inguruan: gardentasuna, interes publikoa nagusi izatea, kargu publikoa alderdiaren edo norberaren xedeetarako ez erabiltzea, karguarengatik eduki daiteken informazio pribilegiatua ez erabiltzea norberaren onurarako, administrazioko kontratazioetan publizitate eta konkurrentzia printzipioak, langileen hautaketarako meritua eta gaitasuna, gastu publikoaren kontrol zorrotza, e.a.

Hau horrela izanik, oso arduratuta eta sentsibilizatuta gaude hainbat hamarkadatan ustelkeria oso praktika zabaldua bihurtu duen sistemarekin eta bereziki azken bolada luzean estatu mailan eta baita Euskal Herrian ere nozitzen ari garen kasuekin; hasi Barcnas auzitik eta Nafarroako Kutxako xahutze sistematikotik eta hainbat udalerrietan ikusi ditugun jarreretaraino.

Gardentasuna, herritarrek gizartean hartzen diren erabaki, prozesu eta gertakari publikoei buruzko informazioa modu egokian eskuratzeko politika eta praktiken multzoa da. Hau izango baita, gardentasuna, Udalek gaur egunean duten erronkarik handienetakoa. Gardentasuna baita herritarrengana hurbiltzen gaituena. Hobeto kudeatzeko eta udal politikaren jarduera legitimatzeko gakoa dela esan dezakegularik.

Hainbat aurrerapauso ematen dira, momentuzko politikaria edota departamentuko teknikariak hala iritzi dutelako. Gure ustez, zehaztuago egon beharko luke eta nahiz eta badiren eskuliburuak ekimen zehatzetan aurrerapausoak emateko, gure aurrekontu ereduarekin aplikagarri bihurtu behar dira proposamen guzti horiek.

Gauzak horrela, gobernu eta administrazio publikoetako ustelkeriak eta zilegi ez diren praktikek honako ondorioak ekartzen dituzte:

- Baliabide publikoak desbideratzea eta alferrik galtzea.
- Herritarrek zinegotzi eta alkateak urruneko eta autoritario gisa ikustea
- Erakunde publikoen eraginkortasunik eza.
- Gobernu-programetan ezarritako helburuak ez betetzea

- Herritarren arazoak eta beharrak ez konpontzea.
- Azpiegitura publikoak murriztea.
- Politikan bezeroen zerbitzuan aritzea.
- Justiziaren lana oztopatzea.
- Gobernuarekiko eta erakundeekiko konfiantza galtzea.

Horren guztiaren jakitun, eta konfiantza praktika onekin eta bertute zibikoen bitartez irabazten dela jakinda (zintzotasuna, leialtasuna, egiazkotasuna, justizia soziala, herritarren arteko berdintasuna, eredugarritasuna eta austeritatea), bizitza politikoa eraberritu behar dela argi dago, herritarra erabakien erdigunean jarriz eta eguneroko jardunean protagonista bihurtuz.

Hau horrela izanik, funtzionamendurako neurriak zehaztuz UDALEKO ALKATE ETA ZINEGOTZIEN JARDUNERAKO KONPROMISOAK ETA NEURRIAK finkatzea egokia dela deritzogu eta udalbatza honi hurrengoa eskatzen diogu:

- Udal honetan aplikagarria den Gardentasun protokolo bat zehazteko konpromisoa hartzea.
- Udal honetan aplikagarria den Gardentasun arautegi bat idaztea,
- Udalak helburu hauek bete daitezen beharrezkoak diren baliabideak jartzea.